



**LASARTE-ORIAKO UDALERRIAN OSTALARITZAKO
JARDUERAREN OSAGARRI DIREN TERRAZAK ETA
MAHAIKHOAK JARTZEKO JABARI ETA ERABILERA
PUBLIKOKO LURZORUA OKUPATZEA ARAUTZEN DUEN
ORDENANTZA**



LASARTE-ORIA
UDALA-AYUNTAMIENTO

OBRAK ETA HIRIGINTZA
OBRAS Y URBANISMO



HITZAURREA

ALDERDI OROKORRAK

Zioen azalpena

Ordenantzaren oinarrian dauden balioak eta irizpideak

Aplikaturako araudia

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Ordenantzaren xedea

2. artikulua.- Aplikazio-eremua

3. artikulua.- Baimenen izaera

4. artikulua.- Okupa daitezkeen espazioen ezaugarriak

II. KAPITULUA

I. ATALA

DEFINIZIOAK

5. artikulua.- Terrazetako elementuen definizioak

6. artikulua.- Terraza motak

7. artikulua.- Mahai-moduluak

II. ATALA

SASOIAK ETA ORDUTEGIAK

8. artikulua.- Sasoiak

9. artikulua.- Ordutegiak

III. KAPITULUA

I. ATALA

INSTALAZIOEN BALDINTZAK

10. artikulua.- I. mota Terraza irekiak

1. Baldintza orokorrak

2. Baldintza espezifikokoak

2.1. I. motako espazioetarako- Ibilgailu-zirkulazioa duten kale eta plazak

2.2. II. motako espazioetarako.- Oinezkoen kale eta plazak

11. artikulua.- II. mota Itxitura duten terrazak

1. Baldintza orokorrak

2. Baldintza espezifikokoak

2.1. I. motako espazioetarako- Ibilgailu-zirkulazioa duten kale eta plazak

2.2. II. motako espazioetarako.- Oinezkoen kale eta plazak

II. ATALA

INSTALATUKO DIREN ELEMENTUEN EZAUGARRIAK

12. artikulua.- Altzariak eta elementu osagarriak

13. artikulua.- Itxiturak



IV. KAPITULUA

BAIMEN ADMINISTRATIBOAK

- 14. artikulua.- Baldintza orokorrak
- 15. artikulua.- Baimenak emateko prozedura
 - 1. Eskaerak
 - 2. Baimenak ematea
 - 3. Baimenak etetea
 - 4. Baimenen transmisioa

CAPÍTULO V. KAPITULUA

OBLIGAZIOAK

- 16. artikulua.- Instalazioaren titularrenak
- 17. artikulua.- Udalarenak

VI. KAPITULUA

SANTZIO-ERREGIMENA

- 18. artikulua.- Ikuskapenak
- 19. artikulua.- Udal-lizentziarik ez duten instalazioak
- 20. artikulua.- Arau-hausteak
 - 1. Arau-hauste arinak
 - 2. Arau-hauste larriak
 - 3. Arau-hauste oso larriak
- 21. artikulua.- Santzioak
- 22. artikulua.- Exekuzio subsidiarioa

VII. KAPITULUA

XEDAPENAK

- Xedapen iragankorra
- Azken xedapena

I. ERANSKINA

- Oinezkoen joan-etorrien dentsitate handiko kaleen zerrenda
- Oinezkoen joan-etorrien dentsitate handiko kaleen planoak
- Mahai-moduluen planoak



HITZAURREA

ALDERDI OROKORRAK

Zioen azalpena:

Lasarte-Oriako udalerrian, gero eta lurzoru publiko gehiago erabiltzen da ostalaritzako jardueraren osagarri diren terrazak jartzeko, eta nahasmen handia dago instalazio horien inguruan, berariazko araudirik ezagatik. Hala, gaur egun, udal-lizentzian baldintzak jarritz osatzen da gabezia hori. Hori horrela izanik, udalak uste du beharrezkoa dela lurzoru publikoaren okupazio horiek gehiago eta zehatzago arautzea, ordenantza baten bitartez.

Bide publikoan terrazak jartzeko eskaerak herritarren ohitura-aldaketekin batera etorri dira. Besteak beste, 42/2010 Legeak tabakoaren kontsumoari buruz ostalaritzaren arloan ezartzen dituen neurriek eragin dituzte aldaketa horiek. Lehen, lokalen barruan eremu iraunkor eta itxiak instalatzeko eskaerak egiten zituzten; orain, berriz, mahai eta aulkidun terraza irekiak edo egitura itxiak dituzten terraza babestuak jartzeko baimenak eskatzen dituzte gehienbat.

Araudi honen bitartez, batetik, ostalaritzak espazio publikoaz egiten duen erabilera arautu nahi da, jarduera horrek modu berezian aprobetxatzen baitu espazio hori, eta, hala, espazio publikoaren erabilera komuna babestu nahi da, pertsona guztiek baitute eskubide hori, neurri berean. Eta, bestetik, bizilagunek atsedenerako duten eskubidea babestu nahi da, herritarrengan oso sustraitua dagoen eta udalerriko ekonomian eragin handia duen ostalaritzako jarduera aurrera eramateko eskubidearekin batera.

Zerbitzu-jardueren sarbide librerako 17/2009 Legea eta merkataritza eta zerbitzu jakin batzuk liberalizatzeko premiazko neurriak buruzko 2012ko abenduaren 26ko 12/2012 Legea kontuan izanik, ordenantza honen bitartez, espazio publiko horien erabilera eta aprobetxamendu berezi horiek arautzen dira. Horretarako, baimen administratiboak emango dira, udal-lizentzia bitartez, jabari eta erabilera publikoko ondasunak erabiltzen direlako, betiere kontuan izanik lurzoru publikoaren erabilera desberdinak, horien intentsitatea, mugak eta, oro har, herritarren eta, partikulariki, jarduera horien bezeroen interesak.

Halaber, terrazak zer garaitan instala daitezkeen arautzen da, Lasarte-Oriako Udaleko ordenantza fiskalarekin bat. Hala, ostalaritzako jarduera aurrera eramateko udalerrian egokienak izan daitezkeen garaiak zehazten dira.

Ordenantzaren oinarrian dauden balio eta irizpideak:

Ordenantza hau honako balio hauetan oinarritzen da:

Erabilera komun orokorrak eta, bereziki, oinezkoen igarobideek duten lehentasuna. Alegia, jarduerak ez du eragotzi behar herritarrek erabilera publikoko espazioetara joateko duten eskubidea, eta, beraz, joan-etorri horiek erosotasunez eta segurtasunez egiteko kondizioak bermatu behar dira.

Hiri-paisaiako zuhaitzak, parterreak eta landareak eta beste hiri-altzari batzuk babestu behar dira.



Zerbitzu publikoen funtzionamendua bermatu behar da; bereziki, larrialdi-zerbitzuak eta lurpeko azpiegiturak.

Pertsonak ingurune osasuntsu bat izateko duten eskubidea babestu behar da.

Aplikaturako araudia

Ordenantza hau Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legean, Administrazio Publikoen Jabariari buruzko 33/2003 Legean eta Korporazio Lokalen Zerbitzuei buruzko Araudian oinarritzen da, ostalaritzaren arloan eta, zehazki, Lasarte-Oriako udalerriko erabilera publikoko espazioetan jarduera horrek egiten dituen erabilerak arautzeko. Ondorio horietarako, espazio publiko gisa hartzen dira udalaren jabari eta erabilera publikoko bide eta espazioak, bai eta, titulartasun pribatua izanik, udalaren erabilera publikora atxikita dauden espazioak ere.



I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Ordenantzaren xedea

Ordenantza honen xedea da jabari eta erabilera publikoko lursailen –titulartasun publikokoak nahiz, titulartasun pribatukoak izanik, erabilera publikora atxikita daudenak– aprobetxamendurako bete beharreko arau tekniko eta juridikoak zehaztea, hain zuzen, ostalaritzako jarduera aurrera eramateko udal-lizentzia duten establezimenduek jarduera horren osagarri diren terraza eta mahaitxoak jartzen dituztenean.

Aurreko paragrafoan adierazitako ondorioetarako, terraza eta mahaitxo gisa hartzen dira bide publikoan jartzen diren eta ostalaritzako jardueraren osagarri gisa erabiltzen diren mahaiak, aulkiak nahiz instalazio osagarriak, finkoak nahiz mugikorak (itxiturak, eguzkitakoak, albo-babesak, berogailuak, argiak...).

2. artikulua.- Aplikazio-eremua

Ordenantza hau udaleko erabilera publikoko espazio guztiei –titulartasun publikokoak nahiz pribatukoak– aplikatzen zaie (kaleak, plazak, etxadien arteko patioak, arkupeak, oinezkoen espazio libreak, berdeguneak...).

Espazio bat erabilera publikokotzat hartzen da espazio horrek izatez duen erabilera kontuan hartuta nahiz indarrean dagoen hiri-plangintzaren zehaztapenak aplikatuta.

Ordenantza honetatik kanpo daude titulartasun eta erabilera pribatuko espazioetan jartzen diren terrazak. Instalazio horiek dagokien udal-lizentziaren bidez arautuko dira, aurrez berariazko eskaera eginda.

Halaber, ordenantza honen xedetik kanpo daude baldintza hauek betetzen dituzten instalazioak:

- 1.- Jabari publikoko ondasunetan egonik, udaleko kontzesio administratibo baten babesean aurrera eramaten diren jarduera osagarriak.
- 2.- Udaleko organo eskudunak ezarritako egutegiaren arabera, herrian ospatzen diren jaietan egiten diren aldi behingo jarduerak.

3. artikulua.- Baimenen izaera

Espazio horiek aipaturiko erabileretako okupatu ahal izateko, dagokion baimen administratiboa behar da. Baimen hori udal-lizentzia modura emango da, terraza irekiak nahiz itxiak instalatzeko.

Udal-lizentziaren eskaera egin ahalko dute, soilik, ostalaritzako establezimenduen jardueralizentziaren gaineko titulartasuna dutenek, baldin eta establezimendu horien funtzionamendua eta jarduera dagokien arau urbanistiko eta sektorialen arabera eramaten badira aurrera.

Terrazen lizentziak nahitaez uztartuta geratuko dira dagokien ostalaritzako establezimenduen lizentziekin, eta, beraz, ezingo dira eskualdatu establezimendu horien jardueretatik bereizita.



Ostalaritzako establezimenduaren titulartasuna aldatuz gero, terrazaren lizentziaren gaineko titulartasuna ere aldatu egingo da, eta titular berriak ez du beste lizentziarik eskatu beharko.

Lizentzia horiek interes publikoaren mende egongo dira, eta, beraz, lizentzia horiek jasotzeak ez dio ematen titularrari beste epealdi batez baimena lortzeko eskubiderik edo itxaropen legitimorik. Interes publikoa kontuan izanik, Udalak aukera izango du lizentzia horiek eteteko edo baliogabetzeko.

Udalak lizentzia emango du jabetzako eskubidea salburik eta hirugarrenen alderdiena kaltetu gabe.

Lizentziak 5 edo 10 urterako emango dira, terraza-motaren arabera (irekia edo itxia, hurrenez hurren).

Baimenen titularren arrisku eta menturan eramango da aurrera jarduera. Debekatuta dago ordenantza honetan zehazten ez diren altzari edo elementuak jartzea; esaterako, zehazturiko mahaien ezaugarriak ez dituzten mahaiak, armairuak, jardinerak, barrak, makinak, bozgorailuak, ikus-entzunezko ekipoak (TV, musika-aparatuak edo hari musikalak), etab.

Baimendutako espazioaren gehieneko okupazioa zehaztuz emango dira lizentziak, mahai-moduluak eta utzi beharreko pasabideak kontuan hartuta. Kasu bakoitzean, titularrak erabakiko du zenbat mahai jarriko dituen eta zenbat denborarako, eta dagokion tasa ordaindu beharko du.

4. artikulua.- Okupa daitezkeen espazioen ezaugarriak

Bi espazio publiko mota bereizten dira, erabileraren arabera.

- I. mota.- Ibilgailu-zirkulazioa duten kaleak eta plazak.
- II. mota.- Oinezkoen kaleak eta plazak.

Halaber, udalerrian bi eremu bereizi dira, pasabide libreen mugak malgutzeko helburuarekin. Hain zuzen, oinezkoen joan-etorrien fluxua edo dentsitatea udalerriko beste leku batzuetan baino baxuagoa duten kaleak desberdintzeko egin da bereizketa hori. Helburu horrekin, ordenantza honen **I. eranskinean**, “oinzkoen joan-etorrien dentsitate altuko” kaleak jasotzen dira, eta, beraz, “oinzkoen joan-etorrien dentsitate baxukotzat” hartzen dira gainerako kaleak.



II. KAPITULUA

I. ATALA

Definizioak

5. artikulua.- Terrazetako elementuen definizioak

1. Terrazak:

Titularitate publikoa edo pribatua –erabilera publikoarekin– duen eta ostalaritzako jarduera batera atxikia dagoen espazioa, non mahaiak, aulkiak eta elementu osagarriak jartzen baitira (eguzkitakoak, albo-babesak, berogailuak, etab.).

2. Mahai baxuak:

0,90 m arteko altuera –borobilak nahiz karratuak– eta 0,80 eta 1,00 m arteko diametroa duten mahaiak.

3. Mahai altuak:

1,20 m arteko altuera –borobilak nahiz karratuak– eta 0,80 eta 1,00 m arteko diametroa duten mahaiak.

4. Upelak:

Zurezko upelak. Neurriak:

Edukiera:	300 eta 500 litro artean
Buruaren diametroa (“c”):	0,63 eta 0,77 metro artean
Upelaren diametroa (“b”)	0,80 eta 0,85 metro artean
Altuera (“h”):	de 1,05 eta 1,10 metro artean

5. Albo-babesak:

Haizetik babesteko albo-itxitura mugikorrek, 1,20 eta 1,50 m artekoak. Horiek jartzeko, berariazko lizentzia eskatu behar da.

6. Eguzkitakoak:

Eguzkitatik babesteko elementu mugikorrek dira. Terrazak okupatzen duen eremuaren barruan jarri behar dira. Ez da behar berariazko lizentziarik horiek jartzeko.

7. Berogailuak:

Berotzeko elementu mugikorrek edo finkoak.

Elementu mugikorrek: Beroa igortzen duten elementu autonomoak. Terrazak okupatzen duen eremuaren barruan jarri behar dira. Ez da behar berariazko lizentziarik horiek jartzeko. Berogailu mugikor gisa hartzen dira, halaber, taldotetan jartzen diren berogailuak.

Elementu finkoak: Beroa igortzen duen eta lokalaren fatxadan ainguratzen den elementu finkoa. Horiek jartzeko, berariazko lizentzia eskatu behar da.



6. artikulua.-

1. I. mota.- Terraza irekiak:

Titularitate publikoa edo pribatua –erabilera publikoarekin– duten eta mahaiak, aulkiak eta elementu osagarriak itxiturarik gabe jartzeko erreserbatuta dauden espazioak. Terraza irekietan, albo-babesak jarri ahalko dira, eta, egunero, lokalaren barruan jaso beharko dira elementu guztiak, bide publikoa libre uzteko.

2. II. mota.-Itxitura duten terrazak:

Titularitate publikoa edo pribatua –erabilera publikoarekin– duten eta mahaiak, aulkiak eta elementu osagarriak egitura finko baten barruan itxita jartzeko erreserbatuta dauden espazioak. Itxitura horiek bide publikoan egongo dira instalatuta, baimenari dagokion epearen barruan.

7. artikulua.- Mahai-moduluak

- I. modulua- Mahai baxuak –karratuak nahiz borobilak– 2,00 x 2,00 m okupa dezakeen espazioan.
- II. modulua- Mahai baxuak –karratuak nahiz borobilak– 2,00 x 1,50 m okupa dezakeen espazioan.
- II.1.- modulua.- Mahai baxuak –karratuak nahiz borobilak– 2,00 x 1,50 m okupa dezakeen espazioan.
- III. modulua- Mahai baxuak –karratuak nahiz borobilak– 2,00 x 1,00 m okupa dezakeen espazioan.
- III.1.- modulua Mahai baxuak –karratuak nahiz borobilak– 2,00 x 1,00 m okupa dezakeen espazioan.
- IV. modulua- Upelak:
- E modulua- Azalergatik terrazan jar daitezkeen baina formagatik aurreko modulueta egokitzen ez diren kasu berezietan aplikatuko da. Kasu bakoitza banan-banan aztertuko da, espazioaren forma eta azalera kontuan hartuta.

Modulu bakoitzeko baimendutako aulki kopuruari dagokionez, I. moduluan, 6 unitate onartuko dira gehienez, II eta II.1 moduluan 4 unitate gehienez eta III eta III.1 moduluan 2 unitate gehienez. Inolaz ere ez dira gainditu behar modulu bakoitzak okupa dezakeen espazioaren mugak.

II. ATALA

SASOIAK ETA ORDUTEGIAK

8. artikulua.- Sasoiak

Urte osoan jarri ahalko dira terrazak. Dena dela, bi sasoi bereizten dira. Ixteko ordutegiak desberdintzen ditu bi garai horiek.

- a) **Udako** sasoiak: Ekainaren 1etik irailaren 30era arteko sasoiak.
- b) **Neguko** sasoiak: Urriaren 1etik maiatzaren 31ra arteko sasoiak.



9. artikulua.- Orduategiak

Goizeko 8:00etik aurrera ireki ahalko dira terrazak. Upelak, berriz, lokala irekitzen denetik jarri ahalko dira.

Aldiz, ordu honetan amaitu beharko da terrazako jarduera eta kendu beharko dira terrazako elementuak:

(Gehieneko ordutegia ikuskizun eta aisialdiko jardueri buruzko araudia onartzen duen 2019ko otsailaren 5eko 17/2019 dekretuaren arabera).

- a) **Neguko** sasoiari, 23:00ean igandetik ostegunera, eta 00:30ean ostiral, larunbat eta jai-bezperetan.
- b) **Udako** sasoiari, 23:30ean igandetik ostegunera, eta 01:00ean ostiral, larunbat eta jai-bezperetan.
- c) Herriko jaietan, inauterietan (asteazkenetik astelehenera), Aste Santuan (asteazkenetik igandera) eta Eguberrietan (abenduaren 23tik urtarrilaren 5era) 2 ordu geroago itxi ahalko dira.

Ixteko ordua iristean, terrazako elementuak kendu beharko dira (terraza irekien kasuan), eta bide publikoa libre utzi. Horretarako, hogeita hamar (30) minutuko denbora izango dute. Terrazako elementuak lokalaren kanpoaldean jarri ahalko dira, aldi batez eta behar bezala jasota, jarduera nagusia publikoari irekia dagoen artean. Jarduera ixteko ordua iristean, ordea, lokalaren barrura sartu beharko dira elementu guztiak.

Adierazitako ordutegiez gain, ordutegi horiek zabaldu egin ahalko dira data jakin batzuetan. Halaber, murrizketa indibidualak edo orokorrak ezarri ahalko dira, egoera berezietan edo eremu jakin bateko elkarbizitza asaldatuta dagoenean, behar bezala justifikatutako arrazoienatik eta interesdunei entzun ondoren.

Terrazak inolaz ere ezingo dira jarrita eduki zeinetara adskribatuta dauden ostalaritzako establezimenduak bete beharreko gehieneko ordutegitik kanpo.



III. KAPITULUA

I. ATALA

INSTALAZIOEN BALDINTZAK

10. artikulua.- I. eredua- Terraza irekiak:

1. Baldintza orokorrak

Ez da emango terrazak jartzeko baimenik, espazioaren ezaugarri fisikoak edo oinezko joan-etorrien intentsitatea kontuan hartuta, pertsonen segurtasunerako, mugikortasunerako edo irisgarritasunerako desgokiak izan daitezkeen espazioetan.

Oztoporik gabe ibiltzeko pasabidea utzi beharko da beti. Pasabide horrek 2,00 metroko zabalera izan behar du, gutxienez, ibilgailuen zirkulazioa duten kaleetan, eta 3,00 metroko zabalera, oinezko kaleetan. Zabalera hori murrizteko aukera izango da, gehienez 1,50 m-ko zabalera arte, ibilgailuen zirkulazioa duten kaleen kasuan, eta gehienez 2,00 m-ko zabalera arte oinezko kaleen kasuan, "oinezkoen joan-etorrien dentsitate baxukotzat" definitutako eremuetan (ordenantza honen I. eranskina).

Elkarren ondoan dauden establezimenduetan terraza bat baino gehiago jarri ahal izateko, linealtasun bat mantendu beharko dute denek, oinezkoen igarobidea zuzena izan dadin, eta joan-etorrian dabiltzan oinezkoek oztoporik edo sigi-saga ibili beharrik ez izateko.

Elkarren ondoko bi establezimenduk terraza dutenean, gutxienez 0,60 m-ko distantziara egon beharko dute, baldin eta elementu bereizlerik ez badago. Elementu bereizleak jarriz gero, 0,40 m-ra murriztu ahalko da distantzia hori (elementu bereizle batekin okupatu beharko da espazio hori).

II, II.1, III, III.1 eta IV (upelak) modulueterako baimendutako okupazioak lokalaren fatxadari atxikiak egon beharko dute, eta gutxienez 0,60 m-ko distantzia mantendu beharko dute atarien tartetatik.

Terrazek gutxienez 1,00 m-ko distantziara egon behar dute eserleku publiko, paperontzi eta irisgarriak diren gainerako hiri-altzarrietatik.

Albo-babesak jartzeko espazioa okupatu ahal izateko, berariazko eskaera egin beharko da. Terrazak okupatzen duen eremuaren luzera bera izan dezakete elementu horiek, eta 0,40 m-ko zabalera terrazak okupatzen duen espaziotik kanpo, baina haren alboan. Ez da onartzen terrazak aurrealdetik ixtea.

Instalazioaren luzerak ez du gainditu behar jarduera nagusia aurrera eramaten den establezimenduko fatxadaren muga. Udalaren ustez alboko lokalei kalterik egiten ez bazaie eta horiek idatzizko baimena ematen badute, luzera hori handitu ahalko da, terrazaren bi alboetara, eta gehienez terrazaren luzeraren % 50. Kasu horretan ere, une oro bermatu beharko da etxebizitza eta lokaletarako sarbidea. Terraza establezimenduaren fatxatik 3,00 m baino gehiagora badago, ez da alboko lokaletako jabeen baimenik beharko terrazak



dagokion fatxadaren mugak portzentaje horretan gainditu ahal izateko.

Sakonari dagokionez, terrazak ez dituzte izan behar elkarren segidako hiru mahai-zerrenda baino gehiago (I. edo II. modulukoak, gehienez 6 metro), mahai horiek jartzea oztopatzen duten trabak edo hiri-altzari finkoak egon nahiz ez egon.

Inolaz ere ezingo da eman arkupe edo pasabide estaliak guztiz okupatzen dituen baimenik terrazak jartzeko, eta, gutxienez, oztoporik gabeko 2,00 m-ko zabalerako pasabidea utzi beharko da (1,50 m ordenantza honen I. ERANSKINEAN oinezkoen dentsitate baxukotzat zehazturiko eremuetan).

Ez da baimenik emango terrazak galtzadan edo modu iraunkorrean aparkalekuetarako edo antzeko erabileratarako diren espazioetan jartzeko, ez eta larrialdiko irteera, ibi, hondakinen edukiontzi edo autobus-geltokien parean, aldamioen azpian edo ondoan eta zirkulazio-bideen beste aldean jartzeko ere.

Terrazako elementuak ezingo dira jarri baimendutako eremutik kanpo –espazio zehatz bat okupa dezaketen albo-babesak izan ezik–. Hala eta guztiz ere, baimendutako espazioaren barruan jarrita dauden elementu osagarri batzuen hegalak (adibidez, eguzkitakoak, toldoak eta markesinak) eremu horretatik atera ahalko dira, baldin eta gutxienez 2,20 m-ko altuera libre uzten badute. Baimendutako eremutik aterata dauden hegal horiek ezingo dituzte inbaditu zirkulazio-bideak, ez eta larrialdiko ibilgailuen pasabideak ere.

Lokalaren fatxadan finkatutako edo kokatutako edozein elementu baimendu ahal izateko (adibidez, toldoak, terrazetara zerbitzatzeko leihoak, apalak, markesinak, berogailu finkoak...), dagozkion arau urbanistikoak aplikatuko dira.

Terraza irekiak jartzeko lizentzia duten establezimenduek bide publikotik kendu beharko dituzte elementu guztiak laneguna amaitzean. Terrazako elementuak lokalaren kanpoan jasota utzi ahalko dira lokala itxi arte.

Terrazak irekita daudenean, ez dira pilatu behar jarduerarekin loturiko elementuak edo materialak (mahaiak, aulkiak, ontziak, orgak, plataformak, eguzkitako oinarriak, etab.) ez baimendutako espazioan, ez haren ondoan, eta, halaber, ez dira pilatu behar instalazioen hondakinak, arrazoi estetikoengatik eta higieneagatik.

Kanpoalderantz irekitzen diren leihoak dituzten lokalek terrazen zerbitzurako erabili ahalko dituzte leiho horiek, hartarako zehazturiko ordutegian. Bestalde, musika edo ikus-entzunezkoak erreproduzitzeko sistemak dituzten establezimenduek (3. taldea edo gehiago) kanpoaldera irekitzen diren leihoak badituzte eta terraza jartzeko baimena badute, ezingo dute erabili leihoa terrazako zerbitzurako baldin eta musika edo ikus-entzunezkoak erreproduzitzeko sistema martxan badago.

Baldintzak eta ezaugarriak direla-eta ordenantza honetan arautzen ez diren okupazio-eskakizunei buruz erabaki ahalko da, betiere ordenantza honetan zehazturiko irizpide eta zehaztapen teknikoak mantenduz.

Aldi baterako arrazoiak suertatuz gero (adibidez, obrak edo aldamioak), eta terraza ezin



bada beste leku batean jarri, baimena eten ahalko da, etenaldia eragiten duen arrazoiak irauten duen bitartean.

Aldi batez itxita dauden lokalen terraza baimenduen espazioa beste establezimendu batzuek erabili ahalko dute, baldin eta establezimendu horiek albokoak badira (alboko gisa ulertzen dira fisikoki elkarren ondoan dauden lokalak). Horretarako, itxita dauden lokaletako titularren baimena beharko da. Terraza horiek erabiltzeko, dagokien baimenean jasotako baldintzak bete beharko dira, eta soilik establezimendua itxita dagoen epean.

2. Baldintza espezifikoak

2.1. I. MOTAKO espazioetarako. Ibilgailuen zirkulazioa duten kaleak eta plazak

Arau orokor gisa, lizentzia ematean, oinezkoen ibilbideak, oinezko zirkulazioaren intentsitatea, espaloien ezaugarri fisikoak, hiri-altzariak, txorakoak eta espazio hori osatzen duten gainerako elementuak errespetatu beharko dira.

Espaloiak 3,00 m-ko zabalera izan beharko du, gutxienez, terrazak jartzeko (2,50 m, ordenantza honen I. ERANSKINEAN oinezkoen dentsitate baxukotzat hartutako eremuetan). Okupazioaren zabalera maximoak ezin du gainditu, inolaz ere, espaloien zabalerearen 2/3.

Oinezkoen zirkulaziorako 2 m-ko zabalera errespetatu beharko da, gutxienez (1,50 m ordenantza honen I. ERANSKINEAN oinezkoen dentsitate baxukotzat hartutako eremuetan), betiere atari eta alboko lokaletarako sarbideak libre utziz eta oinezkoen pasabideak, larrialdiko irteerak, autobus eta taxi geltokiak, zabor-ontziak etab. errespetatuz.

Errepide azkarren alboko espaloien kasuan, terraza lokaleko fatxadaren ondoan jartzea lehenetsiko da.

2.2. II. MOTAKO espazioetarako. Oinezkoentzako kaleak eta plazak.

Arau orokor gisa, lizentzia emango da, baldin eta bermatzen badira –aldi berean– terrazari dagokion erabilera, oinezkoen igarobideak eta ibilgailuen igarobideak – larrialdiko kasuetarako edo karga eta deskargarako–.

Espaloiek 4,00 metroko zabalera izan behar dute, gutxienez, terrazak jartzeko. Okupazioaren zabalera maximoak ezin du izan, inolaz ere, plazaren edo kalearen zabalerearen 2/3 baino handiagoa.

Gutxienez 3,00 metroko espazioa errespetatu beharko da oinezkoen zirkulaziorako (2,00 m ordenantza honen I. ERANSKINEAN oinezkoen dentsitate baxukotzat zehazturiko eremuetan), eta 3,00 m ibilgailuen lokal-sarbideetarako eta larrialdiko edo karga eta deskargako ibilgailuen igarobideetarako, betiere atari eta alboko lokaletarako sarbideak libre utziz eta oinezkoen pasabideak, larrialdiko irteerak, autobus eta taxien geltokiak, zabor-ontziak etab. errespetatuz.



Leku batean elkarren segidan dauden terrazak luzerak ez du gainditu behar etxadi bat osatzen duten eta terrazak dauden kaleen aldera dauden fatxada guztien luzeraren baturaren erdia.

11. artikulua.- II. eredua.- Itxitura duten terrazak:

1. Baldintza orokorrak

Ez da emango itxituradun terrazak jartzeko baimenik, espazioaren ezaugarri fisikoak edo oinezko joan-etorrien intentsitatea kontuan hartuta, ikuspegi estetikoetik eta pertsonen segurtasunerako, mugikortasunerako edo irisgarritasunerako desegokiak izan daitezkeen espazioetan.

Itxiturak bide publikoko elementu independenteak izango dira, eta bide publikora edo zeinetan bermatzen diren eraikinen fatxadetara finkatu edo ainguratu gabe jarri beharko dira.

Oztoporik gabe ibiltzeko pasabidea utzi beharko da beti. Pasabide horrek 3,00 metroko zabalera izan behar du, gutxienez (2,00 m ordenantza honen I. ERANSKINEAN oinezkoen dentsitate baxukotzat hartutako eremuetan).

Elkarren ondoan dauden establezimenduetan terraza bat baino gehiago jarri ahal izateko, linealtasun bat mantendu beharko dute denek, oinezkoen igarobidea zuzena izan dadin, eta joan-etorrian dabilzan oinezkoek oztoporik edo sigi-saga ibili beharrik ez izateko.

Instalazioaren luzerak ez du gainditu behar jarduera nagusia aurrera eramaten den establezimenduko fatxadaren luzera.

Inolaz ere ezingo da eman lizentziarik arkupeetan edo pasabide estalietan itxituradun terrazak jartzeko.

Terrazak gutxienez 1,50 m-ko distantziara egon behar dute eserleku publiko, paperontzi eta irisgarriak diren gainerako hiri-altzarrietatik.

Itxituraren eremu baimendutik ezingo da elementurik atera, itxituraren goiko zatiko hegala izan ezik. Hegal horiek 2,20 m-ko altueran egon beharko dute, gutxienez.

Elkarren ondoko bi establezimenduk terraza badute, banaketa fisikorik gabe jarri ahalko dira, biak itxituradun terrazak direnean nahiz itxituradun terraza bat eta terraza ireki bat daudenean elkarren ondoan.

Terrazak irekita daudenean, ez dira pilatu behar jarduerarekin loturiko elementuak edo materialak (mahaiak, aulkiak, ontziak, orgak, plataformak, eguzkitako oinarriak, etab.) ez baimendutako espazioan, ez haren ondoan, eta, halaber, ez dira pilatu behar instalazioen hondakinak, arrazoizko estetikoengatik eta higieengatik.

Ez da baimenik emango terrazak galtzadan edo modu iraunkorrean aparkalekuetarako edo



antzeko erabileratarako diren espazioetan jartzeko, ez eta larrialdiko irteera, ibi, hondakinen edukiontzi, minusbaliatuen aparkaleku edo autobus-geltokien parean, aldamioren azpian edo ondoan eta zirkulazio-bideen beste aldean jartzeko ere.

Itxitura duten terrazak ez dira bide publikoan utzi behar dagokien baimen administratiboa edo zeinaren parte diren lokalaren jarduera-lizentzia amaitu ondoren. Kasu horretan, itxituraren egitura guztia kendu beharko da.

Itxitura duten terrazetarako baimena duten establezimenduek leihoa edo sarbide zuzena badute lokaletik, elementu horiek erabili ahaliko dituzte, hartarako zehazturiko ordutegiaren barruan. Bestalde, musika edo ikus-entzunezkoak erreproduzitzeko sistemak dituzten eta *itxitura duen terraza* jartzeko baimena duten establezimenduek (3. taldea edo gehiago) kanpoaldera irekitzen den leihoa edo sarbide zuzena badute lokaletik, ezingo dute erabili ez leihoa ez sarbide zuzena terrazako zerbitzurako, baldin eta musika edo ikus-entzunezkoak erreproduzitzeko sistema martxan badago.

Baldintzak eta ezaugarriak direla-eta ordenantza honetan arautzen ez diren okupazio-eskakizunei buruz erabaki ahaliko da, betiere ordenantza honetan zehazturiko irizpide eta zehaztapen teknikoak mantenduz.

Aldi baterako arrazoiak suertatuz gero (adibidez, obrak edo aldamiok), eta terraza ezin bada beste leku batean jarri, baimena eten ahaliko da, etenaldia eragiten duen arrazoiak irauten duen bitartean.

2. Baldintza espezifikokoak

2.1. I. MOTAKO espazioetarako. Ibilgailu-zirkulazioa duten kaleak eta plazak

Arau orokor gisa, lizentzia ematean, errespetatu egin beharko dira oinezkoen ibilbideak, oinezko zirkulazioaren intentsitatea, espaloien ezaugarri fisikoak, hiri-altzariak, txorakoak eta espazio hori osatzen duten gainerako elementuak.

Espaloiak 6,50 m-ko zabalera izan beharko du, gutxienez, itxitura duten terrazak jartzeko (5,50 m, ordenantza honen I. ERANSKINEAN oinezkoen dentsitate baxukotzat hartutako eremuetan). Okupazioaren zabalera maximoak ez du gainditu behar, inolaz ere, espaloien zabalera 1/2.

Gutxienez 3,00 metroko espazioa errespetatu beharko da oinezkoen zirkulaziorako (2,00 m ordenantza honen I. ERANSKINEAN oinezkoen dentsitate baxukotzat zehazturiko eremuetan), betiere atari eta alboko lokaletarako sarbideak libre utziz eta oinezkoen pasabideak, larrialdiko irteerak, autobus eta taxien geltokiak, zabor-ontziak etab. errespetatuz.

2.2. II. MOTAKO espazioetan jartzen diren instalazioak. Oinekoentzako kaleak eta plazak.

Arau orokor gisa, lizentzia emango da, baldin eta bermatzen badira –aldi berean– terrazari dagokion erabilera, oinezkoen igarobideak eta ibilgailuen igarobideak –larrialdiko kasuetarako edo karga eta deskargarako–.



Ez da onartuko itxitura duten terrazak jartzea 9,50 m-tik beherako zabalera duten espaloietan (8,50 m ordenantza honen I. ERANSKINEAN oinezkoen dentsitate baxukotzat zehazturiko eremuetan). Okupazioaren zabalera maximoak ez du gainditu behar, inolaz ere, kalearen edo plazaren zabalaren 1/2.

Gutxienez 3,00 metroko espazioa errespetatu beharko da oinezkoen zirkulaziorako (2,50 m ordenantza honen I. ERANSKINEAN oinezkoen dentsitate baxukotzat zehazturiko eremuetan), eta 3,00 m ibilgailuen lokal-sarbideetarako eta larrialdiko edo karga eta deskargako ibilgailuen igarobideetarako, betiere alboko finketarako sarbideak libre utziz eta oinezkoen pasabideak, larrialdiko irteerak, autobus eta taxien geltokiak, zabor-ontziak etab. errespetatuz.

Leku batean elkarren segidan dauden terrazen luzerak ez du gainditu behar etxadi bat osatzen duten eta terrazak dauden kaleen aldera dauden fatxada guztien luzeraren baturaren erdia.

II. ATALA

INSTALATUKO DIREN ELEMENTUEN EZAUGARRIAK

12. artikulua.- Altzariak eta elementu osagarriak

Aluminiozko eta zurezko mahai eta aulkiak lehenetsiko dira, kolore neutroak dituztenak (zuriak, kremak, metalizatuak, etab.). Ez da erabili behar kolore biziegirik. Eskaera egin aurretik, interesatuak udaleko zerbitzu teknikoetara jo ahalko du, ezaugarri horiei buruzko zalantzak argitzeko.

Albo-babesek mugikorrek eta desmuntagarriak, egonkorrek eta jarraituak izan behar dute; ez dute egon behar lurrari edo fatxadari ainguratuta; opakuak nahiz gardenak izan daitezke; ez dute izan behar ertz bizirik; ez dute izan behar autolabaingarriak, eta ez iraultzeko sistema izan behar dute. Bestalde, 1,20 eta 1,50 m arteko altuera izan behar dute.

Eguzkitakoen kasuan, mahai bakoitzeko bat jar daiteke edo mahai batzuetarako bat. Terraza jartzeko baimendutako eremuan jarri behar dira, lurrera edo paramentu bertikaletara ainguratu gabe.

Aluminiozko eta zurezko eguzkitakoak lehenetsiko dira, goiko itxitura oihalezkoa edo olanazkoa dutenak eta kolore neutroak dituztenak (zuriak, kremak, metalizatuak, etab.). Ez da erabili behar kolore biziegirik. Eskaera egin aurretik, interesatuak udaleko zerbitzu teknikoetara jo ahalko du, ezaugarri horiei buruzko zalantzak argitzeko.

Instalatuko diren berogailuek behar bezala homologatuta egon behar dute. Berogailu **mugikorrek** terraza jartzeko baimendutako eremuaren barruan jarriko beharko dira. Horrez gain, guztiz autonomoak izan behar dute, eta ez dute izan behar konexio finkorik lokaleko instalazioetara. Berogailu **finkoak** fatxadari atxikitako okupazioen kasuan baimenduko dira. Terraza atxikita dagoen lokalaren fatxadan jarri behar dira, eta 2 m-tik gorako altueran.



Instalazioaren elementu osagarri guztiak (kableak, entxufeak, konexioak, etab.) lokalaren barrutik jarri behar dira, kanpotik ez ikusteko moduan.

Ordenantza honetako “definizioak” atalean adierazitako altzari osagarriak bakarrik jarri ahalko dira. Berariaz debekatuta daude laneguna amaitzean jaso edo bide publikotik kendu ezin daitezkeen toldo mugikorak, toldoen luzapen bertikal gisa jartzen diren alboko eta aurrealdeko itxiturak eta ikus-entzunezko instalazioak (TV, hari musikala, musika-aparatuak, etab.).

Baimen edo establezimendu bateko elementu guztiek kolore, diseinu eta ehundura berekoak izan behar dute. Mahai eta aulkiek gomazko babesak izan behar dituzte hanketan, ahal den neurrian zarata murrizteko eta bizilagunei ahalik eta enbarazu gutxien sortzeko.

Debekatuta dago itxituraren barruan baimendu gabeko elementuak, makinak edo altzariak jartzea; besteak beste, edariak, izozkiak, litxarkeriak, jolasak edo opariak dituzten makinak eta soinua erreproduzitzen duen edozein elementu (irratia, telebista, hari edo ekipo musikala). Terraza jartzeko baimendutako eremuan, informaziorako elementu edo arbel bat jartzea onartzen da.

Altzariak egoera onean egon behar dute, oro har.

13. artikulua.- Itxiturak

Itxiturak perimetro itxia eta estalkia duten egitura kubikoak dira.

Instalazioak erraz muntatzeko eta desmuntatzeko modukoa izan behar du, eta bide publikoko elementuetatik eta eraikinetako elementu finkoetatik guztiz independentea. Ez da onartzen zoladurara edo fatxadara ainguratzeko edo lotzeko inolako sistemarik. (Instalazio bat erraz desmuntatzeko modukotzat hartuko da, baldin eta, jarri edo kendu behar denean, urbanizazioko elementu finkoetan eta instalazioa bermatzen den eraikinetan obra edo konponketa handirik egin behar ez bada).

Instalazioaren paretek beira garden edo zeharrargidunak izan behar dute, gutxienez, itxituraren altueraren % 50ean. Lau aldeetatik guztiz edo partzialki ireki ahalko dira, horizontalki nahiz bertikalki. Itxitura goitik behera ixteko, ez da erabili behar oinarrik. Estalkia, berriz, finkoa edo bilgarria izan daiteke.

Itxiturak 3,50 m-ko zabalera izan behar du, gutxienez, eta luzerak ezingo ditu gainditu zeinetara adskribatua dagoen lokaleko fatxadaren mugak.

Gehienez, 2 x 2 m-ko hiru mahai lerro gehi 1 m-ko pasillo baten baliokidea den zabalera izan behar du, ixteko elementuen dimentsioak ere kontuan hartuta.

Berogailuak instalatu ahalko dira –elektrikoak izatea lehenesten da–, baita argiztapena ere. Elektrizitate-hargunea lurpeko kanalizazio bidez egin behar da, eta, horretarako, dagokion udal-lizentzia tramitatu behar da.

Berariaz debekatuta dago ikus-entzunezko instalazio oro (TV, hari musikala, musika-



aparatuak, etab.).

Sarbideari dagokionez, Irisgarritasuneko Legea bete behar du itxiturak (ateen eta barruko pasilloaren zabalera, sarrera kalearen mailan edo barrura sartzeko arrapala, lege horretan zehazturiko maldarekin). Halaber, gurpildun aulki batek biratzeko aukera izan behar du, eta, horretarako 1,50 m-ko diametroko zirkulua egin daitekeen eremuak egon behar du itxitura barruan, oztoporik gabe.

Itxitura ezingo da instalatu zerbitzu edo instalazio publikoen erregistro edo kutxatilen gainean.

Itxiturako elementu batek ere ez du izan behar publizitaterik, ostalaritzako establezimenduaren izena izan ezik.

Itxituraren egiturari ez zaio itsasi edo finkatu behar menu, eskaintza eta abarrei buruzko iragarki edo publizitaterik, itxitura txukun eta duin mantentzeko.

Itxituraren estetikak armonian egon behar du kokatuta dagoen inguruarekin.

Udalak eskubidea izango du mota horretako instalazioak jartzeari uko egiteko, okupatutako espazioaren ezaugarriak kontuan izanda, eremua babesteagatik edo interes publikoak edo udalaren interesak aintzat hartuta.



IV. KAPITULUA

BAIMEN ADMINISTRATIBOAK

14. artikulua.- Baldintza orokorrak

Edozein terraza mota instalatu ahal izateko, aurrez, baimen administratiboa beharko da, zeina udal-lizentzia moduan emango baita.

Lizentziak emantzat joko dira beti, jabetzako eskubiderik ezean eta hirugarrenen jabetzako eskubideari kalterik egin gabe. Hala, onuradunak ezingo du udal-lizentzia argudio gisa erabili bere jarduna aurrera eramatean izan dezakeen erantzukizun zibila edo penala salbuesteko edo murrizteko.

Lizentziak izaera prekariora izango du beti, eta dagokion udal-organoak instalazioa bide publikotik ken dadin agindu ahalko du. Hala gertatuz gero, titularrak ordaindu beharko ditu gastuak, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe, baldin eta beharrezkoa bada trafikoarekin, urbanizazioarekin, obra publikoekin edo interes orokorreko beste edozein inguruabarrekin lotutako arrazoiengatik.

15. artikulua.- Baimenak emateko prozedura

1. Eskaerak

Interesatuak alkateari zuzendutako eskaera aurkeztu beharko du udaleko Erregistro Nagusian (aurrez aurre edo on line), artikulua honetan adierazitako dokumentazioarekin batera. Eskaera horretan, datu hauek eman beharko ditu:

- Eskatzailearen izen-abizenak
- Datu pertsonalak: DNI zk., helbidea eta telefonoa
- Udal-jardueraren izena eta kokalekua
- Jarduerari buruzko datuak (IAE, IFK, etab.)

Eskaerarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu beharko du interesatuak:

Terraza irekiak

- Eskalako planoa edo krokis kotaduna, zeinetan zehaztuko baitira jarri nahi den terraza-eredua, kokalekua, jarri nahi diren mahaien kopurua eta modulua, albo-babesen kokalekua –behar izanez gero– eta lokalaren fatxadaren luzera.
- Alboko lokalek baimena eman izanaren ziurtagiria, baldin eta halakorik behar bada.

Itxitura duten terrazak

Terraza jartzeko baimena emateko:

- Okupazioaren kokalekuaren planoa, okupatuko den espazioaren eta oinezkoen



zirkulaziorako eta lokal eta atarietara sartzeko espazio libreen zehaztapena, eta, halaber, oinezkoen pasabideetara, larrialdiko irteeretara, autobus eta taxien geltokietara eta zabor-ontzietara dauden distantziak.

- Okupazioaren eskalako planoak edo krokis kotaduna, eta mahai, pasabide eta terrazako gainerako elementuen antolaketa.

Itxitura eraikitzeko

Itxituraren Exekuzio-Proiektua (teknikari eskudunak idatzia). Honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

- Elementua eta haren instalazioak deskribatzeko eta justifikatzeko memoria (forma, dimentsioak, materialak, material horiek suarekin duten portaera, sekzioak, lotzeko sistema, egituraren erresistentzia eta haizearekiko erresistentzia (jasan dezakeen abiadura maximoa), eta ordenantza hau betetzearen justifikazioa.
- Kokalekuaren eskalako planoak, plano eta altxaera kotadunak, eraikuntzako xehetasunak, instalazioak, etab.
- Elementua eta harekin loturiko instalazioak erosteko eta muntatzeko aurrekontua.
- Baldintza-Agiria, Segurtasunari eta Osasunari buruzko Oinarrizko Azterketa, Hondakinak Kudeatzeko Plana, Kalitate-Kontrola eta exekuzio-proiektu batean aurkeztu beharreko gainerako dokumentuak.

Terraza jartzeko baimena aldatu eta baimenaren edukian funtsezko aldaketa bat egin behar bada, beste eskaera bat egin beharko da, artikulua honetan adierazitakoa kontuan hartuta.

2. Baimenak ematea

Eskaera ordenantza honetan eskatutako moduan egin ondoren, eta egoki iritzitako txosten teknikoak aurkezturik, udal-organo eskudunak ebatziko du baimenari buruz, legez ezarritako epean, lizentzia ukatuz edo emanez.

Bide publikoaren okupazioari buruzko txostena egiten duten teknikariek aztertuko dituzte egindako eskaerak, aurkeztutako dokumentazioarekin batera, eta, kasua hala bada, falta den dokumentazioa aurkez dadin eskatuko dute. Hori egitean, eskatzaileari jakinaraziko diote, adierazitako dokumentazioa aurkeztu ezean, ez dela baimenik emango. Bestela, egindako eskaera onar dezakete. Kasu horretan, okupazioak bete beharreko baldintzak zehaztuko dituzte, eta plano batean adieraziko dituzte gehienez okupa daitezkeen eremuak –terraza-ereduaren arabera–, kokalekua, mahai-moduluak eta eskatutako albo-babesak.

Lizentziaren dokumentuan jasoko dira okupazioaren baldintzak, betebeharrak eta gehienezko mugak. Okupazioaren kokaleku zehatza adierazten duen planoak aurkeztuko zaio interesatuari. Horrez gain, gehienezko azalera eta baimendutako mahai-moduluak, oinezkoen zirkulaziorako pasabideak eta, ordenantza honen arabera, okupazio bakoitzak bete beharreko gainerako baldintzak zehaztuko dira.

Udal-organo eskudunak terrazak jartzeko lizentzia ukatu ahalko du, baldin eta interes publikoak hala eskatzen badu, trazadura, kokapena, bide-segurtasuna, obra publikoak edo egoki iritzitako beste edozein arrazoi dela eta.



Lizentzia ematea egokitzen ez bada edo baimena ematean aldaketaren bat egin beharko balitz, udalak audientzia eman beharko dio eskatzaileari, hark egoki iritzitako alegazioak egin ahal izan ditzan.

Baimenak gehienezko okupazio-espazio baterako eman ahalko dira, 5 urteko eperako, terraza irekien kasuan, eta 10 urterako, terraza itxien kasuan, aldi baterako eta besterendu ezineko izaerarekin (banan-banan). Hala eta guztiz ere, udalak baimena atzera bota ahalko du, baimena emateko inguruabarrak desagertuz gero edo, baimena emateko unean gertatu izan balira, lizentziari uko egitea eragingo zuketean inguruabarrak sortuz gero. Epe hori igaro ondoren, beste lizentzia bat eskatu beharko da, ordenantza honetan eskaera aurkezteko adierazitako baldintzetan.

Gehienezko okupazio baimendua alde batera utzirik, baimenaren titularrak egoki iritzitako moduan erabili ahalko du espazioa (baimendutako mugen barruan), jarri nahi dituen mahaien kopuruari dagokion tasa ordainduz, kontuan izanik baimendutako modulua edo moduluak, terraza jarri nahi duen denbora eta urte-sasoia.

3. Baimenak etetea

Baimenak eten egin ahalko dira, dirulaguntzak jasotzeko baimenik gabe, honako kasu hauetan:

- a) Zigorrek jartzeagatik.
- b) Interes publikoagatik, obrak egin behar direlako, baimendutako aldamiok jarri behar direlako edo larrialdiko egoerengatik terrazak okupatutako espazioak libre geratu behar duenean.

Baimenak bere efikazia errekuperatuko du etendura justifikatu duten inguruabarrak desagertzean, ebazpen administratibo baten beharrik gabe.

Bide publikoan obrak egin behar direlako eteten bada baimena, tasak proportzionalki itzultzeko ebazpena emango da, edo aldi baterako beste espazio bat ezarriko da –obrek afektatzen ez dutena–, ordenantza honetan adierazitako baldintzetan.

Terraza adskribatua duen ostalaritzako establezimenduaren baimena iraungitzen edo eteten bada, edota edozein arrazoirengatik ixten bada, automatikoki etengo da terrazaren baimena ere.

4. Baimenen transmisioa

Baimenak ezin dira transmititu zeinetara adskribatuta dauden jarduerarekiko modu independentean.

Ordenantza honetako baldintzen arabera transmititzen diren baimenak (jarduerarekin batera) baimena eman zenetik geratzen den eperako bakarrik transmititu ahalko dira.



Ostalaritzako establezimenduko jardueraren titulartasuna transmititzen bada eta udalari jakinarazten bazaio, terrazaren baimena ere transmititu dela ulertuko da automatikoki.

Ostalaritzako establezimenduko jardueraren titulartasuna aldatu dela jakinarazten ez bada, berriz, baimenaren titularrak dituen erantzukizunetara lotuak geratuko dira bi subjektuak.



V. KAPITULUA

BETEBEHARRAK

16. artikulua.- Instalazioaren titularrenak

Dagokion tasa ordaintzea, udalak baimendutako okupazioaren barruan jarri nahi dituen mahaien kopurua kontuan izanda.

Baimendutako eremuan, ordaindutako tasari dagozkion elementuen kopurua eta modulu-motak jartzea, entregatutako planoan baimendu eta adierazten diren mugak errespetatuz.

Ostalaritzako establezimenduak zerbitza ditzakeen janari eta edariak zerbitzatzeko, non eta ez dagoen elikagaiak manipulatzeko zerbitzua mugatzen duen ebazpen espresurik.

Udal-zerbitzuek ikusteko eta eskuratzeko moduan izatea baimena bera eta dagokion planoan. Lokalaren fatxadan jarri beharko da, kanpotik ikusten den leku batean.

Terraza jartzeko finkaturiko ordutegia betetzea.

Terraza eta haren elementu osagarri guztiak kentzeko obligazioa betetzea, ixteko ordua iristean. Baimenaren epea amaitzean, itxiturak kentzeko obligazioa betetzea.

Baimendutako ordutegia amaitzean terrazan dauden pertsonak terrazatik joan daitezten arduratzea.

Udalak instalazioaren kontserbazioko eta mantentzioko egoera ikuska dezan uztea, okupazioaren baldintzak betetzeko egin beharreko konponketak edo bestelako ekintzak zehazteko.

Instalazioak baimendutako espazioan edo jarduera martxan dagoen bitartean sortutako kalte guztien gaineko erantzukizuna hartzea. Titularrak bere kontura eta modu egokian konpondu beharko ditu kalte horiek, udaleko teknikarien gainbegiradapean.

Izaera orokorreko betebeharrak eta ordenantza honen aplikaziotik eratorritakoak albo batera utzirik, instalazioaren titularrak obligazioa izango du okupatzeko baimendutako lurzorua nahiz instalazioa bera eta haren elementu osagarriak garbi, seguru eta txukun mantentzeko. Beraz, aldi behin erratza pasa eta garbitu egin beharko du, eta horretarako beharrezkoak diren baliabideak izan beharko ditu (paperontziak, hautsontziak, etab.).

Jardueraren titularrak gainerako bizilagunen lasaitasunerako eskubidea errespetatu beharko du. Hortaz, ez du onartu behar iskanbilarik, liskarrik edo zaratarik instalazioan; bereziki, 23:00etik aurrera.



17. artikulua.- Udalarenak

Okupazioa finkatzea eta zehaztea, kokalekuaren plano bat aurkeztuz. Plano horretan zehaztuko dira okupa daitezkeen azalera, mahaien kopurua eta modulua, albo-babesak eta oinezkoen zirkulaziorako pasabideak. Udalaren dokumentu horretan, instalazioaren irekitzeko eta ixteko ordua zehaztuko da.

Baimenaren titularraren eskura jartzea okupa ditzakeen lursailak, baimena notifikatzen den egunaren hurrengotik.

Espedienteetan audientziako tramitea ematea, eta eskatzaile bakoitzari hartutako erabakiak notifikatzea.

Baimena aldez aurretik eteteagatik bide publikoaren okupazioa amaitzean, dagokion zenbateko proportzionala itzultzea,.

Ikuskapena egitea, eta instalazioa aurkezturiko dokumentazioarekin eta proiektuarekin eta baimena emateko baldintzekin bat datorrela egiaztatzea.



VI. KAPITULUA

SANTZIO-ERREGIMENA

18. artikulua.- Ikuskapenak

Udaltzaingoak eta udal-lurren erabileraren ondare-kudeaketa esleitua duen udal-zerbitzuak zaindu eta kontrolatu behar dute ordenantza hau betetzen den.

Udaltzaingoak, edozein pertsona fisikok edo juridikok eta edozein entitatek salatu ahalko ditu, udalaren aurrean, ordenantzaren edo baimenaren baldintzen urraketak. Horretarako, salaketa-idatzi bat aurkeztu beharko da, egiaztatzeko beharrezkoak diren datuak aurkeztuta eta Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Komunari buruzko 39/2015 Legearen 66. artikuluan jasotako xedapenak beteta.

19. artikulua.- Udal-lizentziarik ez duten instalazioak

Udal-organo eskudunak, aurrez interesatuari audientziako epe bat eman ondoren, berehala kendu ahalko du udal-lizentziarik gabe jarritako terraza, eta udal-zerbitzuen biltegian utzi, hargatik eragotzi gabe hurrengo artikuluen arabera aplikatu beharreko arauzko santzioak.

Derrigorrezko udal-lizentziarik gabe jarritako instalazioa kentzean, dagokion diruzko santzioa ezartzeaz gain, establezimendua desgaituta geratuko da ordenantza honetan araututako baimenak etorkizunean lortu ahal izateko, gehienez 2 urtez.

20. artikulua.- Arau-hausteak

Arau-hausteak izango dira lizentzia emateko udal-ebazpenean jasotzen diren baldintzen kontrako edo, oro har, ordenantza honetan xedaturikoaren kontrako ekintza edo ez-egite guztiak.

Arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.

1. Arau-hauste arinak

- a) Lizentzian baimendutako espazioa ez den beste espazio bat okupatzea.
- b) Emandako planoan baimendutako kokalekutik kanpo jartzea moduluak.
- c) Instalaturako mahai, aulki eta bestelako elementuek lizentzian jasotako kopurua gainditzea, % 20 baino portzentaje txikiagoan. Neurritz kanpoko kopurua zehazteko, elementuek okupatzen dituzten azalera hartuko dira kontuan.
- d) Baimena eta baimenaren plano ikusteko moduan ez edukitzea.
- e) Okupaturako eremua ez garbitzea egunero eta modu egokian.
- f) Musika-aparatuak, bozgorailuak edo ikus-entzunekeko elementuak instalatzea.
- g) Bizilagunei molestia eragitea.



- h) Ordenantzako baldintza orokorrak, espezifikokoak eta instalatu beharreko elementuen ezaugarriak ez betetzeagatik arau-hauste larri edo oso larri gisa tipifikatu gabe dagoen beste edozein ekintza edo ez-egite, betiere nahita egina ez bada edo ez-betetzea behin eta berriro gertatzen ez bada.

2. Arau-hauste larriak

- a) Urtebeteko epean hiru arau-hauste arin edo gehiago pilatzea.
- b) Instalatutako mahai, aulki eta bestelako elementuek lizentzian jasotako kopurua gainditzea, guztira, lizentzian jasotakoaren % 20 eta % 40 artean. Neurritz kanpoko kopurua zehazteko, elementuek okupatzen dituzten azalerak hartuko dira kontuan.
- c) Baimendu gabeko espazioak okupatzea: oinezkoen zirkulazioari traba egiten diotenak, edo larrialdiko zerbitzuen, zerbitzu publikoen, eraikinen (atariak, garajeak, etab.) edo merkataritzako lokalen sarbidea edo segurtasuna eragozten dutenak eta trafikoaren ikusgaitasuna zailtzen dutenak.
- d) Ordenantza honetan zehazturiko irekitzeko edo ixteko ordutegia ez betetzea, 20 minutu baino gehiagoan, eta 60 minutura arte.
- e) Konexio elektrikoak, gas-konexioak eta abar egitea, horiek legeztatzeke proiekturik gabe.

3. Arau-hauste oso larriak

- a) Urtebeteko epean hiru arau-hauste larri edo gehiago pilatzea.
- b) Instalatutako mahai, aulki eta bestelako elementuek lizentzian jasotako kopurua gainditzea, guztira, lizentzian jasotakoaren % 40 baino portzentaje handiagoan. Neurritz kanpoko kopurua zehazteko, elementuek okupatzen dituzten azalerak hartuko dira kontuan.
- c) Terraza baimenik eskatu edo lortu gabe jartzea.
- d) Terraza edo eremua baimendu gabeko jarduera bat egiteko erabiltzea.
- e) Hiri-altzariak, eserlekuak, paperontziak, farolak eta abar udal-baimenik gabe kentzea edo lekuz aldatzea.
- f) Baimenik ez izateagatik instalazioa kentzeko edo baldintzak betetzen ez dituzten elementuak kentzeko agindua ez betetzea.
- g) Jabari edo erabilera publikoko ondasunetan edo alboko ondasunetan kalte larriak eragiten dituzten ekintzak edo ez-egiteak.
- h) Trafikoarekin, urbanizazioarekin, interes orokorrekarekin edo udal-interesarekin lotutako arrazoiengatik terraza jasotzeko eta kentzeko agindua eta epeak ez betetzea.
- i) Emandako eskubidea iraungitzean terraza jasotzeko eta kentzeko eta okupatutako espazioa hutsik uzteko agindua eta epeak ez betetzea.
- j) Baimena alokatzea, lagatzea edo eskualdatzea ostalaritzako establezimenduaren baimenarekiko modu independentean.
- k) Konexio elektrikoak, gas-konexioak eta abar egitea, horiek legeztatzeke proiekturik gabe, baldin eta instalazioak pertsonetan edo haien ondasunetan berehalako arriskua sortzen badu.
- l) Ordenantza honetan zehazturiko irekitzeko edo ixteko ordutegia ez betetzea, 60 minutu baino gehiagoan.



21. artikulua.- Santzioak

- 1 Santzioaren graduazioa modu arrazoituan zehaztuko da, inguruabarrak kontuan hartuta; besteak beste, hauek: ekintza nahita egina izatea; sortutako kalteen larritasun handiagoa edo txikiagoa; ordena gehiago edo gutxiago oztopatzea; ekintza edo ez-egitea errepikatzea; beste pertsona edo jarduera batzuen eskubideen lasaitasun edo jardun baketsuan sortutako eragozpen-maila; osasun-egoeran eta apaingarri publikoetan sortutako eragozpenen maila; zerbitzu edo espazio publiko bat erabiltzeko pertsonak duten eskubidean sortutako eragozpen-maila; zerbitzu publiko baten funtzionamendu normalean sortutako eragozpenaren maila; zerbitzu edo espazio publiko edo pribatu baten ekipamendu, azpiegitura, instalazio edo elementuetan sortutako kalteen maila; kontuan hartzeko modukoa izan daitekeen beste edozein inguruabar.
- 2 Santzio bat jartzeak ez du murrizten sortutako kalte-galerak ordaintzeko obligazioa.
- 3 Santzioak mota askotakoak izan daitezke: ohartarazpen hutsa, diruzko santzioa, baimena aldi baterako etetea eta instalazioa kentzera edo zigilatzea behartzea, eta baimena iraungitzea eta instalazioa kentzera behartzea.
- 4 Tipifikatutako arau-hausteei santzio hauek aplikatuko zaizkie:
 - a) Arau-hauste arin bakoitzeko, ohartarazpena edo 750 € arteko isuna.
 - b) Arau-hauste larri bakoitzeko, baimena aldi baterako etetea eta instalazioa kentzera edo zigilatzea behartzea, gehienez hilabete batez, eta 1.500 € arteko isuna.
 - c) Arau-hauste oso larri bakoitzeko, baimena aldi baterako etetea eta instalazioa kentzera edo zigilatzea behartzea, gehienez sei hilabetez, eta 3.000 € arteko isuna, edo baimena baliogabetzea eta iraungitzea, eta 3.000 € arteko isuna, instalazioak kentzeko obligazioarekin batera.
- 5 Zigortutako arau-hausteak behin eta berriz errepikatuz gero, honako graduazio hau aplikatuko da isunean, eta, horrez gain, baimena etetea eta instalazioa bide publikotik kentzea edo zigilatzea aginduko da, epe hauetan:
 - a) Urtean bi arau-hauste arin edo gehiago eginez gero, bigarrenari 300 €-ko graduazioa ezarriko zaio, eta hurrengoan, arau-hauste larritzat jotzen denez gero, baimena eten eta baliogabetu egingo da eta instalazioak kentzera eta zigilatzea behartuko da establezimendua, gehienez hilabete batez, eta, hala badagokio, 301 € eta 600 € arteko isuna ezarriko zaio.
 - b) Urtean bi arau-hauste larri edo gehiago eginez gero, bigarrenari 600 €-ko graduazioa ezarriko zaio, eta hurrengoan, arau-hauste oso larritzat jotzen denez gero, baimena eten eta baliogabetu egingo da eta instalazioak kentzera eta zigilatzea behartuko da establezimendua, gehienez hiru hilabetez edo behin betiko –baimena iraungiz–, eta, hala badagokio, 601 € eta 1.000 € arteko isuna ezarriko zaio.

22. artikulua.- Exekuzio subsidiarioa



1. Instalazioaren arduradunak ez badio kasurik egiten bide publikoan instalatutako elementuak kentzeko udal-aginduari, ordenantza honetan aurreikusitako kasuetan, udalak aukera izango du, subsidiarioki, instalazioa kentzeko. Kasu horretan, dagokien lekuan utziko dira, eta jabeak handik hartu ahalko ditu, baina, aurrez, gastuak ordaindu beharko ditu, Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Komunari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean xedaturikoarekin bat.
2. Artikulu honetan xedaturikoaren arabera kendu diren elementuak ezingo dira egon biltegian gordeta 6 hilabetetik gorako epean. Epe hori igaro ondoren interesatuak ez baditu handik atera, udalak suntsitu, saldu edo laga egingo ditu.



VII. KAPITULUA

XEDAPENAK

Xedapen iragankorra

Terraza eta mahaitxoak jartzeko jadanik emanda dauden baimenak ordenantza honetan zehazturiko baldintza teknikoetara pixkanaka egokitu ahal izateko, **sei hilabeteko egokitzapen-epea ezartzen da, ordenantza GAOn argitaratzen denetik aurrera**. Epe horretatik aurrera, terraza eta mahaitxo guztiek ordenantza honetan zehazturiko baldintza teknikoak bete beharko dituzte.

Ordenantza hau indarrean jartzean tramitazio-fasean dauden baimenen kasuan, xedapen hauetara egokitu beharko dira egin beharreko tramiteak eta aurkeztu beharreko dokumentuak.

Ordenantza hau indarrean sartzean baimen administratiboa duten itxitura iraunkorrek bide publikoan jarraitu ahalko dute baimenaren epea amaitu bitartean.

Azken xedapena

Ordenantza honetako xedapenak indarrean sartuko dira eta Lasarte-Oriako udalerrian aplikatuko dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunaren hurrengotik aurrera.

Xedapen gehigarria

Osasun-larrialdiko egoera deklaratu gero, eta pertsonen arteko distantzia soziala handitu behar izanez gero, alkateak ahalmena izango du ordenantza honetan adierazitakoez besteko baldintza batzuk ezartzeko terrazei, emandako lizentzietan jasotako baldintzen ordean. Salbuespenezko baimen horiek bertan behera geratuko dira, automatikoki, osasun-larrialdiko egoera amaitzen denean.



I. ERANSKINA

OINEZKOEN JOAN-ETORRIEN DENTSITATE HANDIKO KALEEN ZERRENDA
OINEZKOEN JOAN-ETORRIEN DENTSITATE HANDIKO KALEEN PLANOA
MAHAI-MODULUEN PLANOA



LASARTE-ORIA
UDALA-AYUNTAMIENTO

OBRAK ETA HIRIGINTZA
OBRAS Y URBANISMO



OINEZKOEN JOAN-ETORRIEN DENTSITATE HANDIKO KALEEN ZERRENDA

ANTONIO MERCERO PLAZA.....	z/g
BEKOKALE BIDEA.....	2
GELTOKI KALEA.....	1etik 19ra eta 2tik 16ra
GOIKALE.....	1etik 9ra
HIPODROMO ETORBIDEA.....	1etik 15era eta 2tik 14ra
IÑIGO DE LOIOLA.....	2, 4
KALBARIO BIDEA.....	1, 3
KALEA NAGUSIA.....	1etik 51ra eta 2tik 46ra
OKENDO PLAZA.....	z/g
OLA KALEA.....	2tik 14ra
PABLO MUTIOZABAL KALEA.....	1etik 9ra eta 2tik 6ra
PINTORE KALEA.....	2
SAGARDOTEGI KALEA.....	1etik 3ra eta 2tik 6ra
TORRE PARKEA.....	z/g
ZUMABURU KALEA.....	1
GANBO KALEA.....	1
ANDAPA KALEA.....	1

OINEZKOEN JOAN-ETORRIEN DENTSITATE BAXUKO KALEEN ZERRENDAUDALERRIKO GAINERAKO KALEAK